

han eta hemen

1998ko kutunenak

Urtero bezala, hemen gaude berriro urteko laburpena izan nahi duen bozketarekin. Parte hartu nahi baduzue, badakizue zer egin behar duzun: atal bakoitzean erantzun bat eman (1998koa izan beharko du), eta ondoren EGUNKARIA-ko erre-dakzio nagusira bidali (Gudari- en etorbidea z/g 20.140 Andoain). Gutunazalean **barkatu ama**-Urteko kutunenak idatzi.

MUSIKA

- ▶ Euskal diskorik gustukoena
- ▶ Euskal talde/abeslaririk gustukoena
- ▶ Euskal talde/abeslari berri- rik gustukoena
- ▶ Nazioarteko diskorik gustukoena
- ▶ Nazioarteko talde/abeslaririk gustukoena

- ▶ Urteko kontzerturik gustukoena

BERTSOLARITZA

- ▶ Bertsolaririk gustukoena
- ▶ Gazte bertsolaririk gustukoena

ANTZERKILARITZA

- ▶ Euskal antzezlanik gustukoena
- ▶ Gizonezko euskal aktorerik gustukoena
- ▶ Emakumezko euskal aktorerik gustukoena

LITERATURA

- ▶ Euskal libururik gustukoena
- ▶ Euskal idazlerik gustukoena
- ▶ Idazle gazterik gustukoena

TELEBISTA IRRATI-ZINEMA

- ▶ Telebista saiorik gustukoena
- ▶ Irrati saiorik gustukoena
- ▶ Filmik gustukoena

BESTELAKOAK

- ▶ Urteko berri-rik onena
- ▶ Urteko berri-rik txarrena
- ▶ Gazte ekimenik gustukoena
- ▶ Urteko gaztea

Alegiako Gaztetxearen 11. urteurrena

Alegiako Gaztetxea sortu zenetik 11 urte beteko dira egunotan, eta hori dela eta, hainbat ekintza eta ekitaldi prestatu dituzte egunotarako. Bihar bertan herriko sagardo dastaketa egingo da plazan 18:30etan, gauza be- ra gaztetxean 21:00etan, eta bertsolariak izango dira 22:30etan. Eguna amaitzeko kontzertua egingo da 23:30etan, eta Andoni Tolosak musika jarriko du ondoren.

Larunbatean, 20:00etan, saiheski jana izango da gaztetxean; eta igan- dea zinemaren eguna izango da: 17:30etan *Babe, el cerdito valiente* es- kainiko dute, eta 20:30etan, *Rompiendo las olas*. Astelehenean *play- back*-ak izango dira gaztetxean, 21:30etan; eta astearte arratsaldean ume festa. Hilaren 30ean, 20:00etan, ardi gazta nola egiten den erakutsi- ko dute, eta 22:30etan pelikula izango da. Urtezahar egunean festa izango da gaztetxean, eta

urtarrilaren 2an (la- runbata), 11. urteurre- nari amaiera emateko, Suia Reggae Bandek eta Gestionikek kon- zertua eskainiko dute 23:00etan.



LEHIAKETAK

Portugaleteko komiki lehiaketa. Portugaleteko Santa Clara kul- tur elkarteak Portugalete Hiria komiki lehiaketa jarri du abian. Lanak aurkezteko epea urtarrila- ren 15ean amaitzen da, eta, in- formazioa jaso nahi baduzue, helbide honetara jo behar duzue: Santa Clara kultur elkarte, Kul- tura Saila, Casilda Iturrizar ka- lea, z/g, 48920 Portugalete. Tele- fonoa hauxe da: 94-4729220. Irabazleak 140.000 pezeta eta oroigarria jasoko ditu, baina ba- dira beste sari batzuk ere.

Getxoko Nazioarteko Jazzaldia. Getxo Jazz elkarteak XXIII. Na- zioarteko Jazzaldiko talde lehia- ketarako izena emateko epea ire- ki du, eta 1999ko otsailaren 13ra arte irauango du. Lehiaketa Jaz- zaldiaren lehen hiru egunetan egingo da, uztailako lehen hiru egunetan. Talde lehiaketa Euro- pako edozein talderi zuzenduta dago, eta hautapen batzordeak izena eman duten talde guztien artean sei aukeratuko ditu. Lehiaketan parte hartzen dute- nen gehieneko adina 30 urtekoa izango da, gazteei zuzendutako ekimena baita. Lehiaketaren ira- bazleak 500.000 pezetako saria jasoko du, eta disko bat graba- tzeko aukera izango du.

Imaginarock 99. Cadena 100 irrati kateak eta Es- painiako Egile eta Argitaratzaile-

en Elkarteak (SGAE) musikari berriak sustatzeko Imaginarock lehiaketa jarri dute abian. Lehia- ketak hiru fase izango ditu (loka- la, lurraldekoa eta estatu maila- koa), eta irabazleak disko bat grabatzeko erabiliko duen 2.000.000 pezetako saria jasoko du. Bakarlari eta taldeek bi eta bost minutu arteko hiru abestiz osatutako maketa bidali behar dute 1999ko urtarrilaren 16a baino lehen Cadena 100eko emi- sora batera. Horrekin batera, izen-emate txartela eta argazki bat aurkeztu behar dira.

IKASTAROAK

Tunk! Irungo Tunk! aretoak musika ikastaroak antolatzen jarraitzen du, eta urtarrilerako honako hauek iragarri ditu: soinu tekni- karia, ahots teknika, D.J. eta musika informatika. Ikastaro hauei edo bestelako gai-ri buruz- ko informazioa nahi baduzue, deitu Tunk!-en telefono zenbaki- ra: 943-633366.

ERAKUSKETAK

Mattin-en erakusketa. Mattin marrazkilaria eta komikig- learen erakusketa ikusgai dago Legazpiko Herriko Tabernan. EGUNKARIAN argitaratutako la- nak bildu ditu Mattinek, eta ho-

ZINE ETA ANTZERKI AGENDA

Antzerkia

- ▶ *Pan pan hasteko, pan...* (Tutik Ere Clowns): gaur, Elorrioko Arriola kultur areto- an, 17:00etan.
- ▶ *Lourvier's story* (Lourvier's-Tentaldia): larunbatetik astelehenera arte, Barakal- do Antzokian, 20:30etan. Igandean 20:00etan.
- ▶ *Maletatxo* (Tutik Ere Clowns): larunbatean, Tolosako Leidpr antzokian, 16:30etan.
- ▶ *Entre mujeres*: astelehenean, Sestaoko Aiss aretoan, 19:30etan.
- ▶ *Don Quijote* (Teatro de la Resistencia): astelehenean, Iru-eko Gaiarre antzo- kian, 12:00etan.
- ▶ *Txanogorritxu* (Gorakada): astelehenean, Ermua Zineman, 17:30etan.
- ▶ *Leoncio y Lena* (Basauriko Antzerki Eskola): asteartean, Sestaoko Aiss areto- an, 19:30etan.
- ▶ *Azeriaren fabula* (Titiriteros de Binefar): asteartean, Ermua Zineman, 17:30etan.
- ▶ *Eureka* (La Puerta Mágica): asteartean, Iruñeko Gaiarre antzokian, 12:00etan.
- ▶ *Lourvier's story* (Lourvier's-Tentaldia): asteazkenean, Ermua Zineman, 22:15etan.
- ▶ *Goloka Park* (Goloka): asteazkenean, Donostian, 17:00etan.
- ▶ *Xagukumeak* (Hika Antzerki Taldea): asteazkenean, Bergarako kiroldegian, 17:00etan.
- ▶ *Kartoibiraka* (Markeliñe): asteazkenean, Gernika Zineman, 17:30etan.
- ▶ *Merlin y el joven Arturo* (L'Horta Taldea): asteazkenean, Iruñeko Gaiarre antzo- kian, 12:00etan.

Zine-klubak

- ▶ *Magic Fire* (William Dieterle): larunbatean, Bilboko Arte Ederretako museoan, 17:00etan.
- ▶ *Con faldas y a lo loco* (Billy Wilder): asteartean, Bilboko Arriaga antzokian, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.
- ▶ *Intermezzo* (Gregory Ratoff): asteartean eta asteazkenean, Bilboko Arte Ede- rretako museoan, 17:00etan.
- ▶ *Los amantes del círculo polar* (Julio Medem): asteazkenean, Lasarteko kultur etxean, 22:00etan.
- ▶ *Boogie nights* (Paul Thomas Anderson): asteazkenean, Getxo Antzokian, 20:00etan.

riek daude ikusgai Legazpiko Arranon. Erakusketa urtarrila- ren 5a arte izango da irekita.

PROPOSAMENAK

Disko azoka.

Hurrengo igandean diskoaren azoka egingo da Donostiako Amara Plaza hotolean. Goizeko 11:00etatik 21:00etara, konpak- tuak eta biniloak izango dira sal- gai azokan, eta baita merchandi- singarekin lotutako beste hain- bat produktu ere.

JARDUNALDIAK

Soraluzeko gaztetxea.

Soraluzeko gaztetxean hainbat ekintza eta ekitaldi egiten ari dira egunotan, eta datozen zazpi egu- netan ere hainbat ekintza izango da: larunbatean kontzertua dago Assoles, Nuevo Catecismo Ca- tolico eta First Fucking talde- kin, gaueko 22:30etan, eta igan- dean, 12:00etan, Gaztetxeko tai- la erakusketa. Asteazkenean bi- deo emanaldia izango da 17:30etan, perkusio saioa Gazte- txe behean 19:00etan, eta kon-

zertua Piztiak eta Sasoi Ilunak taldeekin 23:00etan.

Hernaniko III. Bertso Lata

Hirugarren urtez, Iraulio Pantta- lone Hernaniko Bertso Kabiya- k Bertso Lata izeneko jardun- diak antolatu ditu Eguberrieta- rako. Ekitaldiak bihar, ostirala, hasiko dira eta Urteberri egune- an amaituko dira. Ostirlean ber- tso afari paranoikoa izango da Jon Maia, Jon Sarasua eta Josu Goikoetxearekin, Langile ikasto- lan, 21:00etan. Astelehenean bertso erretratuak egun guztian izango dira kalean. Hurrengo egunean bertso eskolako ikasle- en saioa izango da Biteri kultur etxean 18:00etan, eta asteazke- nean Hernaniko musikari eta bertsolarien *xoua* Bodega taber- nan, 20:00etan. Hurrengo oste- gunean, Urte zaharreko erronda egingo da Hernaniko kaleetan, 18:00etatik aurrera. Eta amaiz- tzeke, Urteberri egunean, bertso saioa izango dugu Sandiusterr- i aretoan Andoni Egaña, Igor Elortza, Sebastian Lizaso, J.J. Loidisaletxe, Iñaki Zelaia eta Ai- tor Mendiluzerekin. Bertso saioa 22:30etan hasiko da.

